

## Bikaintasun operazionalako enpresa kasuak, negozioaren emaitzetan eragina dutenak

2013/01/24

Goi Eskola Politeknikoak eta Asenta Management Consultants etxeak antolatuta, otsailaren 9an zabalkundeko jardunaldi hau egingo da, 09:30ean, Bilboko Merkataritza Ganberan, eta helburua da parte hartzaileak prestatzea prozesuak xahuketarik gabe kudeatzeko, bezeroaren gogobetetzea eta enpresaren lehiakortasuna handitzeko, epe labur, ertain eta luzera. Hori baita kudeatzaile on batek menderatu behar duena. Gaiaren adituen arabera, bikaintasun operazionalan enpresaren jarduerak egiten direnean prozesua eta horien adierazleak hobetzen dira, baina, horrez gain, enpresen balantze ekonomiko-finantzarioetan emaitza hobekuntza lortu behar dira.

Jardunaldia, "bikaintasun operazionalaren" inguruan egingo diren beste batzuk bezala, zuzendaritza postuetan edo industri kudeaketa ardura duten pertsonen zuzendutako dago, horien artean zuzendari nagusiak, operazioen zuzendariak, produkzioa, kalitatea, mantentze lanak, logistika, etab.

### Programa

09:30 h	Jardunaldiaren aurkezpena
09:40 h	Operazioen zuzendariaren eginkizuna gaur egungo enpresa testuinguruan LUIS MAULEON, ASENTA Management Consultants etxeko kide zuzendaria
10:00 h	Etengabeko hobekuntza. Hobekuntza taldeen zuzendaritza emozionala JAVIER MUGICA, ARATUBO Sako I+G eta Kalitateko zuzendaria
10.40 h Hobekuntzan	GSWren esperientzia Prozesu Operazionalen LUIS BLANCO, GLOBAL STEEL WIRE altzairutegiaren zuzendaria
11:20 h	Kafe atsedena
11:40 h etxean hedatzea	LEAN programak ALCOA, Flat Rolled Products JOSE AUGUSTO CORRALES, LEAN Europa/Hego Amerikako zuzendaria, ALCOA
12:20 h aurkezpena (MDO)	Industria Operazioen Zuzendaritza Masterraren JAVIER GUALLAR MONDRAGON UNIBERTSITATEKO MDO graduondoko koordinatzailea. MU
12:40 h	Solasaldi hitzaldia Hegoamerika
13:00 h	Saioaren amaiera.



Bilboko Merkataritza Ganbara